

EGOKIERA SORTU

Botilari erreparatzen zaio maiz: botila beteari, botila hutsari, botila zulatuari. Euskarak azken hamarkadetan izandako bilakae-ran agerikoa da aurrerapausoa, batez ere ezagutzari dagokionez. Aitortu egin behar da hori. Kontua da, ordea, aurrerabide horrek ezintasun handiak dauzkala: euskararen egoera ez da arrosa kolorekoa, gorria baizik. Nahiz eta euskararen ezagutza hedatzen ari den, herritar gehienek ez dute euskara ulertu ere egiten; nahiz eta transmisioa sendotzen ari den, gutxiengo da etxean euskara jasotzen duena; nahiz eta euskaraz gehiagok dakiten, apenas hazi da errazen euskaraz egiten duten euskaldunen ehunekoa; nahiz eta euskararen ezagutza areagotu, euskaldun-dentsitate handieneko lekuak ahultzen ari dira. Finean, nahiz eta herritar gehiagok dakiten euskaraz, egokiera falta da euskararen erabileran urrats esanguratsuak egiteko.

Testuinguru horrek badu arrisku bat: uste izatea erabileran dagoela arazoa. Alegia, euskararen ezagutzak nabarmen egin duela aurrera, eta kontua zera dela,

GARIKOITZ GOIKOETXEA EUSKARA-TEKNIKARIA

euskaldunek ez dutela egiten, ez dutela nahi, erdara hautatzen dutela. Eta, bai, datuak hotz-hotzean begiratuta, handitzen ari da ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte. Inkesta Soziolinguistikoa: 1991n, % 22ko ezagutzarekin, % 14ko erabilera trinkoa — euskaraz egiten dutenak erdaraz adina edo gehiago—; 2021ean, % 30eko ezagutzarekin, % 18ko erabilera. Aldea argiagoa da testuinguru informaletan. Eustaten zentsuak argazki makurra dakar: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 1991n, % 26k zekiten euskaraz, eta % 14k zuten euskara etxeko hizkuntza; 2021ean, % 43k dakite, eta etxeko hizkuntza % 13k dute. Bide beretik, kaleko erabileraren neurketak dioenez, Euskal Herrian euskararen erabilera apalagoa da 2000ko hamarkadakoa baino, nahiz eta urteotan milaka herritarrek ikasi duten euskara. Kaleko neurketan eta Eustaten zentsuan umeak zenbatuta daude; inkestan, ez. Iza-tez, ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakala hori nabarmenagoa da belaunaldi berrietan.

Gordina da egoera, baina ez harritzekoa. Okerra baita soilik katearen azken

begiari erreparatzea, erabilerari. Zeren, bai, gero eta gehiagok dakite euskaraz, baina ez daukate euskaraz aritzeko egokierarik: testuinguruari dagokionez, euskaldun gehienen herrikideek euskara ez dute ulertu ere egiten —maiz, etxekideek ere ez—, eta, beraz, eguneroko harreman askotan euskarak ez du aparteko erabilgarritasunik; norbanakoen ikuspegitik, euskaldun gero eta gehiagok bigarren hizkuntza dute euskara, eskolan ikasia, batik bat eskolan ikusia, eta aiseago mintzo dira erdaraz.

Erabilera tratatua dago, eta egiturazko hutsuneak daude traba hori gainditzeko. Kontua ez da erabilera ez dela hazten ezagutzaren hein berean: kontua da baldintza hauetan oso nekeza dela erabilerak epe laburrean pauso esanguratsuak ematea. Bestela esanda: ezagutza hedatzearekin orube bat jartzen ari da euskara indarberritzeko, baina hori soilik ez da aski erabilera handitzeko.

Egokiera behar da euskaraz jarduteko: norberea eta inguruarena. Hori da datozen urteetako erronka nagusietako bat: ezagutza hedatzeaz gainera, euskara erabiltzeko egokiera handitzea. Horretarako, ordea, kontuan hartu behar da nolako aldaketak gertatu diren, eta gertatuko diren.

ALDAKETA DEMOGRAFIKOEI ERREPARATU

Hizkuntzaren egoerak lotura estua du biztanleriarekin: hiztunak dira hizkuntza. Hortaz, aldaketa demografikoek berealdiko eragina dute. Batetik, biztanleria zahartzeak:

ezagutza belaunaldi berrietatik ari da hedatzen, baina adin-talde horiek gero eta pisu txikiagoa dute. Mantsotze bat sor daiteke, beraz. Horrek zera esan nahi du, euskararen ezagutzak aurrera egin dezan, ezinbestekoa dela helduen multzoan gehiago eragitea, hor baitago hutsunerik handiena, 35 urtetik gorakoan artean. Bestetik, migrazio-mugimenduak: jaio baino herritar gehiago hiltzen dira, eta migrazioen bidez ari da biztanleria areagotzen. Erdaldunen zakua puztea dakar horrek.

Funtsezko zeregina du helduen euskalduntzeak. Nolakoa da, ordea, euskaraz ikasteko egokiera? Batetik, ikuspegi praktikotik, ez dago premia nabarmenik. Argi esan dezagun: Euskal Herri gehienez eroso bizi daiteke euskaraz jakin gabe, baina ez gaztelania edo frantsesa jakin gabe —euskara jakiteko beharra sumatzen den lekuetan, arnaguneetan, handiagoa da euskara ikasten ari direnen tasa—. Bestetik, ikasteko nahia izanda ere, oztopo handiak daude; besteak beste, dirua. Urteotan aurrerapauso esanguratsuak eman dira, dirulaguntzak handituta, baina eredu horrek baditu albo-ondorioak: adibidez, tituluekiko morrontza, eta ikasturte hasieran matrikularen kostua —ez merkea— aurreratu beharra. Urrats erabakigarriak behar dira, euskara ikastea —Euskal Herri gehienez eskubide gisa aitortua— diruaren uztarpetik ateratzeko: itun politiko zabalak, euskara ikasteko eskubidea zinez bermatuko dutenak, eta baliabideak, eta erakundeen arteko koordinazio handiagoa, orain dirulaguntzetan dagoen anabasa gainditurik.

Gauzak dauden-daudenean, hala ere, aitor dezagun: Euskal Herri gehienean, gaurko erdaldun (heldu) gehienek ez dute euskara ikasiko. Ez behintzat euskaraz eroso mintzatzeko adina. Hain justu ere, hedatzen ari da beste hiztun-tipologia bat, eta uste izatekoa da are gehiago hedatuko dela: ia euskaldunak, euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez direnak. Maiz esaten da euskararen ezagutzak aurrerapen handia egin duela, eta hala da, baina aurrerapen handiagoa egin du ulermenak. Inkesta Soziolinguistikoa-ren arabera, euskal herritarren % 16 dira ia euskaldunak: 430.000 lagun. Euskaraz dakiten bi herritarreko, beste bat dago euskara ulertzen duena. Gehien-gehienek eskolan edo euskaltegian eskuratu dute euskara ulertzeko adinako maila.

Ez da gutxiestekoa hiztun horiek egin dezaketen ekarpena, modua jar baitezakete euskaldunen erabilera erabat ez tratatzeko. Hori, ordea, bideratu egin behar da: itun sozial bat. Euskaraldiak bistan jarri du profil hori, *belarriprest* rola oker ulertuta, baina lan pedagogiko handia dago egiteko, haiekin euskaraz egiteari zilegitasuna emateko eta ele biko elkarrizketetara egokitzeke.

HEZKUNTZA, EZINBESTEKOA

Euskararen indarberritzeak ezinbesteko-ezinbestekoa du hezkuntzaren ekarpena oraindik orain. Euskal Herriko ume gehien-gehienek erdara jasotzen dute etxean. Euskararen transmisioak aurrera egin du, eta irabazi garbia gertatzen ari

da: adibidez, bi gurasoak direnean eskolan edo euskaltegian euskaldunduak, seme-alabek euskara jasotzen dute lautik hirutan. Aldaketa bat ere badator: transmisioa ele bietakoa da gero eta gehiago, alegia, euskara ez ezik gaztelania edo frantsesa ere transmititzen dute guraso euskaldunek —ez horrenbeste bi bikotekideek euskara lehen hizkuntza dutenean, baina bai lehen hizkuntza ez dutenean edo bikotekideetako batek euskaraz ez dakienean—. Kontua da, baina, guraso gehienak erdaldun elebakarrak direla. Espero izatekoa da transmisioa areagotu egingo dela datozen urteetan, ezagutza hedatzen ari denez, baina ez da izango hazkunde erabat lineala —aintzat hartu behar da, esate baterako, jatorri atzeritarreko familiariek biztanlerian baino pisu proportzional handiagoa daukatela jaiotzetan—.

Eskolak rol zentrala izango du aurrerantzean ere, beraz. Euskarazko hezkuntzaren hedapena da zeregin nagusietako bat: hezkuntza orokorrean, adibidez, Euskal Herriko bost ikasletik batek euskara ez du ikasgai ere, eta, adinean gora egin ahala, handiagoa da ehuneko hori. Bi hutsune nagusi daude: Nafarroa erdi-hegoaldea (G eta A ereduak dira nagusi: lehenean, euskara ez da ikasgai ere; bigarrenean, ikasgai soila) eta Ipar Euskal Herria (hirutik bi frantses hutsez ari dira, eta hamarretik bakarra murgiltzean). Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan D eredu argi gailendu da, baina badauka hazteko tarte (Lanbide Heziketan, adibidez); eztabaida pil-pilean dago, gainera.

Euskararen ezagutzan berebiziko eragina du euskarazko hezkuntzaren hedapenak. Adibide gisa har daitezke Iruñea eta Gasteiz. 1991n, antzeko ezagutza zuten: % 6 Iruñeak, % 8 Gasteizek; 2021ean, % 29 Gasteizek (21 puntuko irabazia) eta % 12 Iruñeak (6 puntuko irabazia). Eta gehiago handituko da aldea, Gasteizko adingabeen % 79k baitakite euskaraz, eta Iruñekoen % 29k. Ezagutza mendebaldera desplazatzen ari da, euskarazko hezkuntzaren hedapenaren ispilu gisara.

Euskarazko hezkuntzak berak badu beste erronka bat: ikasleen euskara-gaitasuna hobetzea. Ikasleek D ereduan lortzen dituzte euskara-gaitasunik onenak —abiapuntua ere hobea da, etxean euskara jaso duten gehienak D ereduan baitaude—, baina badago hobetzeko tartea. Gordina da datua: Jaurlaritzak 2019an egindako ebaluazio diagnostikoaren arabera, D ereduko ikasleen erdiek ez dute euskarazko gutxieneko mailarik (% 50) —gatzelaniaz gutxieneko mailarik ez dutenak % 16 dira, eta horietako ia guztiek ez dute mailarik euskaraz ere—. Agerikoa da, beraz, gai horri heldu beharra: hizkuntzak irakasteko moduak egokitzea, ahazkotasuna gehiago lantzea, irakasleen prestakuntza sozio-linguistikoa sendotzea... Arazoak ditu euskarazko murgiltzeak, bai, baina, bere mugekin, hark ditu emaitzarik onenak: gainerakoetan apenas lortzen da gaitasunik.

Eskolak ez dezake dena egin. Hala da. Baina eskolak asko dezake, batez ere hark egindako lana inguruan osatzen baldin bada. Eskolaz kanpoko jardueretan, aisialdian badago jauzi bat emateko

premia, horiek ere *D eredura* eramateko. Zeharkako gai bati ere heldu behar zaio aisialdian: ikasle asko falta dira jarduera horietan; hain justu ere, euskaraz trebatzeko premiarik handiena duten ikasleak dira askotan. Hutsune sakona da hori: euskaraz aritzeko espazioak behar dituzte.

TOKIAN TOKIKORA EGOKITU

Euskaraz aritzeko espazioak non eta nola sortu, kontuan hartu behar da tokian tokiko egoera. Hizkuntza-plangintzarekin lotutako planteamenduek bi oinarri uztartu behar dituzte: batetik, nazio- eta komunitate-ikuspegiak, euskararen herria josiko dutenak, euskararen ametsa Euskal Herri osora hedatuko dutenak; bestetik, tokiko errealitatea, ez bertan goxo geratzeko, baizik eta abiapuntuak eta helburuak doitzeko. Hizkuntza-plangintza eraginkorrak egiteko premisa da hori.

Ez da ahaztekoa euskararen egoera zein desberdina den Euskal Herriaren luze-zabalean; datozen urteetan, gainera, handitu egingo dira aldeak. Nahitaezkoa da hizkuntza-politikak eremukatzea: ez hizkuntza-eskubideak mugatzeko, ezpada politika eraginkorrak egiteko. Jakina, ezinbestekoak dira nazio-mailako proiektuak: Korrikaren indar sinbolikoa Euskal Herri osoan da beharrezkoa, baita pantailatako eskaintza ugaritzea ere. Baina ahozko erabilera helburu duten jardunak ez ote dira tokian tokiko errealiterara eta aurretara gehiago egokitu behar? Kasurako, Euskaraldiaren xedeek eta moduek berberak izan behar ote dute Zarautzen eta

Zarrakaztelun? Lan-munduak lehentasun bera ote du Arrasaten eta Carcarren? Kontua ez da ikuspegi nazionala urardotzea, baizik eta erabilera bultzatzeko tokian-tokian egiten diren jardunak egokitzea eta eraginkortzea.

Maiz aipatu da hirigune nagusiak dituela euskarak irabazteko, eta, bolumenaren aldetik, gune esanguratsuak dira horiek, baina, gaur egungo egoera soziolinguistikoan, rol interesgarria dute eskualdeek, abagunea jartzen dutelako hizkuntza-politikan modu mailakatuan urratsak egiteko.

Euskaldun-dentsitate apaleko lekue-tan bizi dira euskaldun gehienak. Etorkizunera begirako gogoeta eskatzen du horrek: gaur-gaurkoz udalerrri horietako askotan nekeza da erabileran pauso esanguratsuak ematea, baina, aldi berean, premiazkoa da zabaltzen ari diren aukerekin orube egokia prestatzea, bihar-etzi emaitzak jasotzeko. Epe ertain-luzerako ikuspegi behar da. Alde horretatik, behar da euskalgintzan inbertsio handiagoa eremu horietan, besteak beste, erreferentziazko leku izango diren babesguneak sortzeko edota toki-hedabideen sarea hedatzeko.

Euskaldun-dentsitate handiko eremuek pisu demografiko txikiagoa daukate, baina esangura berezia euskararen erabileran: hirugarren eta laugarren gune soziolinguistikoetan ekoizten da erabileraren zatirik handiena. Ez da harritzekoa: haietan dago euskaraz aritzeko egokierarik handiena, bai hiztunena, bai inguruarena. Horregatik da kezkatzekoa eremu euskaldunenetako atzerakada. Pentsa liteke

kopuruz pisu txikia dutela, jende gutxi bizi dela, eta atzerakada horrek eragin arina duela. Tentuz hartu beharrekoa da, ordea, duen inpaktuagatik, bai alde sinbolikoan, bai erabilera efektiboan. Eremu horietan da euskara eguneroko hizkuntza nagusia. Giltzarri dira.

LEGEAREN ATERKIA

Eraberritzeko premia handia du hizkuntza-politikak, kontuan hartuta nolako aldaketa sozialak eta soziolinguistikoak gertatu diren azken hamarkadetan. Horretarako, ordea, ezinbesteko du lege-oinarri sendo bat. Datozen urteetarako zeregin inportantea izango da legedian urratsak egitea. Zeren, ez, euskara ez da legeekin soilik indarberrituko, baina legeak ere nahitaezkoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 40 urtetik gora ditu euskararen legeak. Egoera asko aldatu da: legea egin zenean, erkidegoko bost herritarretik batek zekien euskaraz — umeak zenbatuta —, eta gain behera zihoan ezagutza — zenbat eta gazteago, euskaldun gutxiago —; 40 urtean bikoiztu egin da euskararen ezagutza, eta adin-talde berrietan da handiena. Aldaketaren neurria: EAEko hiru euskaldunetik bi jaiotzeko zeuden 1982ko legea onartu zenean. Legean babestu egin zen euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea — besterik da euskaldunen eskubide-urraketak sistematikoak izatea —. 40 urteren ostean, lege hori ia gainditu egin dute arau berriago batzuek, elebitasun simetrikotik harago joanda. Hori da heldu beharreko

gai bat: nola babestu euskarazko jarduna izatea normala; adibidez, gaztetxoan aisian, udalerrri euskaldunetan... Ikuspuntu soziolinguistikotik nabaria da horren premia, euskara lehenestekoa, baina itun soziopolitiko zabala eskatzen du horrek, eta epaileen ezpatapetik babesteko neurriak. Zumeak josteko daude.

Nafarroan ere zumeak falta dira. Eskubideak mailakatzea dakar euskararen legeak, eta egoera gordina da: Nafarroako hiru euskaldunetik bi bizi dira euskara ofiziala ez den udalerrietan, eta adingabe euskaldunak hartuta, are gehiago. *Errealitate soziolinguistikoa* jarri da zonifikazioari eusteko aitzakia gisa, baina errealitatea hau da: beste herrialde batzuetan baino mantsoago, baina euskararen ezagutza hedatzen ari da Nafarroan ere, eta badira udalerrriak eremu mistoan eta ez-euskaldunean, euskaldun-ehuneko handiagoa dutenak 1986an eremu euskaldunean kokatutako udalerrri batzuek baino. Lokaztutako eztabaida politikoaren erdian dago euskara, eta errealitatea bistaratu behar da: zonifikazioa, bidegabea izateaz gain, kontraesanean sartua dago.

Ofizialtasunik ezaren ondorioak nabarmen nozitzen ari dira Ipar Euskal Herrian ere. Euskaldunen kopuruak jaisteari utzi dio azken urteotan, baina migrazioekin biztanleria hazten ari denez, proportzioan gero eta gutxiago dira euskaldunak. Eta aurreikuspena ere hori da. Lege-eskumen erabat murriztekin ari da hizkuntza-politika garatzen Ipar Euskal Herrian, baina, horren aldean, euskararen indarberritzean oso interesgarriak diren

mugimenduak ere badira: etxebizitzaren eta lurraren gaia mahai gainean jarri dutenak, edo libertimenduaren gisako ekintzekin euskarari bide ematen ari direnak. Ezinbestekoa da lege-muga hertsien barruan zirrikituak bilatzea —hezkuntzako murgiltzea hedatzeko, adibidez—, eta atxikimendu politiko eta sozialak errotzea.

HAUTUAREN PREMIA

Euskararen aldekotasuna elikatzea, etengabe jorratu beharreko arloa baita hori. Euskararen indarberritzean urrats handiak egin dira hamarkada hauetan, eta badago abagunea aurrerapen erabakigarriak egiteko. Baina horrek ez du esan nahi egoera erabat arrosa irudikatu behar denik.

Euskararen *normalizazioa* da erronka, baina onar dezagun errealitate bat: nahiz eta ezagutzan egiturazko pausoak eman, nahiz eta erabilera-aukerak areagotu, nahiz eta lege-babesa sendotu, euskara hizkuntza minorizatua izango da, eta euskaraz dakiten herritarrek beste hizkuntza bat behintzat jakingo dute. Euskaraz egitea hautu kontzientea izango da Euskal Herri gehienez. Euskararen ezagutza eremu erdaldunetan ari da hedatzen, euskara bigarren hizkuntza duten hiztunekin. Aintzat hartu behar da norabide hori: erdaraz erosoago moldatzen den eta inguruan erdara nagusi duen elebidunak zergatik egingo du euskaraz aritzeko hautua? Hori elikatzea eta bideratzea da datozen urteetarako jomuga: euskaraz aritzeko egokiera sortzea.



AS ARENAS GAMINIZ ↑
AREETA ↑
Ayuntamiento Udala ↑
← Centro Urbano Hirigunea ↑

